



# Samsung E2510

Erabiltzailearen eskuliburua

**SAMSUNG**

Euskaltelek itzultako eta  
ekoiztutako eskuliburua



Samsung E2510

Telefono mugikorra  
**Erabiltzailearen eskuliburua**

Baliteke eskuliburu honen edukia zure telefonoarekin erabat bat ez etortzea, telefonoaren softwarearen edo zure zerbitzu-hornitzailearen arabera.

(QD Bluetooth-aren IDa: B014672)

[www.samsungmobile.com](http://www.samsungmobile.com)

Printed in Korea

Code No.: GH68-21471A

Spanish. 12/2008. Rev. 1.0



## Erabilerari eta segurtasunari buruzko informazioa

Kontuan eduki ohar hauek egoera arriskutsuak edo ilegalak saihesteko eta telefono mugikorraren errendimendua hobea izan dadin bermatzeko.



CAUTION

## Segurtasun-neurriak

### **Arretaz gidatu beti**

Ez erabili telefonoa gidatzen ari zarela, eta bete gidatzean mugikorraren erabilpena murrizten duten arau guztiak. Baimenduta badago, erabili esku libreko osagarriak segurtasuna hobetzeko.

### **Bete segurtasuneko arau eta ohar guztiak**

Bete zenbait eremutan mugikorrak erabiltzea debekatzen duten arau guztiak.

### **Samsung-ek onartutako osagarriak soilik erabili**

Bateragarriak ez diren osagarriak erabiliz gero, zure telefonoa kaltetu daiteke, edo zeu zauritu zaitzke.

### **Itzali telefonoa ekipo medikoetatik gertu zaudenean**

Zure telefonoak interferentziak eragin ditzake ospitaleetako edo osasuna zaintzeko instalazioetako ekipo medikoetan. Bete pertsonal medikoaren oharrak eta argibideak adierazten dituzten seinaleak.



WARNING

## Seguratsunari buruzko oharrak

### **Ez utzi telefonoa haurren eta etxeko animalien eskuetan.**

Ez utzi telefonoa eta haren osagarriak haurren eta animalien eskuetan. Irentsiz gero, zati txikiak zauri larriak eragin edo haurrak ito ditzakete.

### **Babestu entzumena**



Entzungailuan bolumen altuan erabiltzeak entzumena kaltetu dezake. Erabili elkarrizketa edo musika entzuteko beharrezkoa den bolumenaren konfiguraziorik txikiena.

### **Kontuz instalatu telefono mugikorrek eta gainerako tresnak**

Egiaztatu telefono mugikorrek edo haiei lotutako ekipoak modu seguruan instalatuta dituzula zure ibilgailuan. Ez jarri telefonoa eta osagarriak airbagak dauden eremutik hurbil. Haririk gabeko tresnak behar bezala instalatzen ez badira, zauri larriak eragin daitezke airbag-ak azkar irekitzean.

### **Itzali telefonoa edo desaktibatu haririk gabeko funtzioak hegazkinean zoazela**

Zure telefonoak interferentziak eragin ditzake hegazkineko ekipoetan. Bete hegazkin-konpainiaren arau guztiak eta itzali zure telefonoa edo jarri haririk gabeko funtzioak desaktibatutako moduan, hegazkin-konpainiako langileek hala adierazten badute.

### **Saiatu bateriek eta kargagailuek kalterik izan ez dezaten**

- Ez jarri bateriak tenperatura oso altu edo oso baxuetan (0 °C-tik behera edo 45 °C-tik gora). Muturreko tenperaturen kargatzeko gaitasuna eta baterien bizitza erabilgarria murriztu dezakete.
- Jarri bateria leku lehor batean.
- Saiatu bateriak ez daitezen egon metalezko objektuekin kontaktuan; baterien + eta – terminalen konexioa sortu, eta betirako edo aldi baterako kaltea eragin daiteke.
- Ez erabili hondatutako kargagailu edo bateria bat.

### **Kontuz erabili eta bota bateriak eta kargagailuak**

- Samsung-ek onartutako eta zure telefonorako bereziki diseinatutako bateriak eta kargagailuak soilik erabili. Bateragarriak ez diren bateriek eta kargagailuek kalte larriak eragin diezazkieke zure telefonoari.
- Inoiz ez bota bateriak sutara. Erabilitako bateriak edo telefonoak botatzean, bete tokiko arau guztiak.
- Ez jarri bateriak edo telefonoak berotzen diren gailuen barruan edo gainean (adibidez, mikro-uhin labeak, berogailuak edo erradiadoreak). Bero gehiegi jasoz gero, bateriak lehertu egin daitezke.
- Inoiz ez jo edo zulatu bateria. Ez jarri bateria kanpoko presio handia jasan behar duen lekuan. Barneko zirkuitulabur bat sortsu eta gehiegi berotu dezake.

### **Saiatu taupada-markagailuekin interferentziarik ez sortzen**

Utzi gutxienez 15 cm-ko distantzia telefono mugikorren eta taupada markagailuen artean, interferentziarik egon ez dadin, fabrikatzaileen eta Wireless Technology Research ikerketa-talde independentearen gomendioei jarraituz.

Zure telefonoak taupada-markagailu batean edo beste gailu medikoren batean interferentziak eragiten dituela uste baduzu, itzali telefonoa berehala eta jarri harremanetan taupada-markagailuaren edo gailu medikoaren fabrikatzailearekin, aholkularitza jasotzeko.

### **Kontuz eta arretaz erabili telefonoa**

- Ez busti telefonoa. likidoek kalte larriak eragin ditzakete. Ez ukitu telefonoa eskuak bustita ditzuzula. Urarekin kontaktuan egoteagatik telefonoa hondatzen bada, baliteke fabrikatzailearen garantia bertan behera gelditzea.
- Ez erabili edo biltegitatu telefonoa hautsa eta zikintasuna dagoen lekuetan, zati mugikorretan kalterik egon ez dadin.
- Zure telefonoa gailu elektronikoko konplexua da; babestu kolpeetatik eta erabilera zabarretik kalte larriak izan ez dezan.
- Ez margotu telefonoa; pinturak zati mugikorrek blokeatzen baditu ez dute behar bezala funtzionatu.
- Ez erabili telefonoaren kameraren flasha edo argia haurren edo animalien begietatik hurbil.
- Ere mu magnetikoetatik hurbil telefonoa eta txartelak kaltetu egin daitezke. Ez erabili itxiera magnetikoak dituzten kutxatilkak edo osagarriak, eta ez utzi telefonoa eremu magnetikoekin kontaktuan denbora luze.

### **Saihestu beste gailu elektronikoekin interferentziak izatea**

Telefonoak irrati-maiztasunaren seinaleak igortzen ditu, eta horiek interferentziak sor ditzakete babestu gabe edo gaizki babestuta dauden ekipamendu elektronikoen, hala nola taupada markagailuetan, audifonoetan, gailu medikoetan eta etxeko edo ibilgailuko beste gailu elektronikoen batzuetan. Jarri harremanetan gailu elektronikoen fabrikatzaileekin sortzen zaizkizun interferentzia-arazoak konpontzeko.

## Itzali telefonoa leherketak egon daitezkeen inguruetan bazaude

Ez erabili telefonoa gasolina hartzeko lekuetan (gasolindegietan) edo erregaietatik edo produktu kimikoetatik hurbil. Itzali telefonoa hori egiteko adierazten duten seinaleak edo jarraibideak ikusten dituzun aldiro. Zure telefonoak leherketak edo suteak eragin ditzake erregaia edo produktu kimikoak biltegitartzeko eremuetatik hurbil, aldatzeko eremuetan edo detonagailuetan. Ez eraman suak har dezakeen likidorik, gasik edo leher daitezkeen materialik, telefonoa eta haren piezak edo osagarriak doazen leku berean.

## Saihestu mugimendu errepikakorrek eragindako kalteak

Zure telefonoarekin testu-mezuak bidaltzean edo haren jokoak erabiltzean, eutsi gailua eskua erlaxatuta duzula, teklak arin sakatu, sakatu beharreko tekla-kopurua murrizteko funtzio bereziak erabili (txantiloiak eta testu prediktiboa, adibidez), eta maiz hartu atseden.


# CE 0168



## Erabilerari buruzko informazio garrantzitsua

### Ez erabili telefonoa ohiko posizioan ez bada

Saiatu telefonoaren barneko antenarekin kontakturik ez izaten.



### Langile adituei soilik utzi telefonoa konpontzen

Adituak ez diren langileek telefonoa konpontzen badute, baliteke telefonoa kaltetzea eta bermea bertan behera gelditzea.

### Saiatu bateriak eta kargagailuak ahalik eta bizitza erabilgarri luzeena izan dezaten

- Ez kargatu bateriak astebetetz baino gehiagoz; gainkargak bateriaren bizitza erabilgarria murriztu dezake.
- Denborak aurrera egin ahala, erabiltzen ez diren bateriak deskargatu egingo dira, eta erabili aurretik berriro kargatu beharko dira.
- Erabili behar ez direnean, deskonektatu kargagailuak energia-iturrietatik.
- Erabili bateria diseinatu zuten helbururako bakarrik.

### **Kontuz erabili SIM txartelak eta memoria-txartelak**

- Ez kendu telefonoko txartela informazioa lekualdatzen edo erabiltzen ari dela; hori eginez gero, datuak galdu eta txartela edo telefonoa kaltetu daitezke.
- Babestu txartelak kolpe bortitzetatik, elektrizitate estatikotik eta beste gailu batzuek eragindako perturbazioetatik.
- Datuak maiz idazten eta ezabatzen badira, memoria-txartelaren iraupena murriztu egingo da.
- Ez ukitu urre koloreko kontaktuak edo terminalak behatzekin edo metalezko objektuekin. Txartela zikina badago, garbitu zapi leun batekin.

### **Bermatu larrialdi-zerbitzuetarako sarbidea**

Baliteke zenbait eremu edo egoeratan zure telefonotik larrialdi-deirik egin ezin izatea. Urruneko edo garatu gabeko lekuetara bidaian joan aurretik, prestatu larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jartzeko beste metodoren bat.

### **Absortzio Espezifikoaren Tasaren (SAR) ziurtagiriari buruzko informazioa**

Irratien eta telekomunikazio-tresnen irrati-maiztasunaren energiarekiko esposizioa mugatzen duten Europako Batasuneko (EB) estandarrak betetzen ditu telefonoak. Estandar horiek gehieneko esposizio-maila (absortzio espezifikoaren tasa edo SAR deitua) hau da, giza ehunaren kg bakoitzeko 2,0 watt gainditzen duten telefono mugikorren salmenta saihesten dute.

Probak egitean, modelo honetarako erregistratu zen gehienezko SAR maila kilogramoko 0,336 watt-ekoa izan zen. Erabilera normalarekin baliteke SAR maila baxuagoa izatea, hurbilenerako estaziora seinalea igortzeko beharrezkoa den irrati-maiztasuneko energia soilik igortzeko diseinatuta baitago telefonoa. Automatikoki ahalik eta mailarik baxuenak igortzen dituzenez, telefonoak irrati-frekuentziako energiarako esposizioa murrizten du.

Eskuliburu honen amaieran agertzen den adostasun-deklarazioak frogatzen du telefonoak betetzen duela irrati-eta telekomunikazio-ekipoen Europako direktiba. SARi eta Europako Batasuneko estandarrei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus Samsung telefono mugikorren web gunea.

### **Produktua behar bezala botatzea**

(Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak)

(Baliozkoa da Europako Batasunean eta bilketa-sistema independenteak dituzten Europako beste herrialde batzuetan)



Produktuan edo hari buruzko liburuxketan marka hau agertzeak esan nahi du gailuaren bizitza erabilgarria amaitu ondoren ez dela etxeko hondakin arruntekin bota behar.



Hondakinak kontrolrik gabe ezabatzeagatik gizakien osasunean eta ingurumenean kalterik ez egiteko, bereizi produktu hau beste hondakinetatik, eta

birziklatu dagokion bezala, baliabide materialen berrerabilpen jasangarria sustatzeko.

Erabilera arrunterako erabiltzen dutenek, produktua segurtasunez eta ingurumenari kalterik egin gabe birziklatzeko artikulua hau nora eta nola eraman behar duten jakiteko, erosi zioten txikizkako saltzailearekin edo tokiko gobernuko bulegoarekin jarri behar dute harremanetan.

Negozioan erabiltzen dutenek hornitzailearekin jarri behar dute harremanetan, eta erosketa-kontratuaren baldintzak berrikusi. Produktu hau ez da hondakin komertzialekin nahasi behar botatzen denean.

### Produktuaren bateria behar bezala botatzea

(Baliozkoa da Europako Batasunean eta bilketa-sistema independenteak dituzten Europako beste herrialde batzuetan) Baterian marka hau agertzen bada, produktuaren bateriaren bizitza erabilgarria amaitzean, ez da bota behar etxeko gainerako zaborrarekin batera. Markatuta badaude, Hg, Cd edo Pb ikur kimikoek esan nahi dute bateriak merkurioa, kadmioa edo beruna dituela EBren

2006/66 Direktiban erreferentziatutako jarritako balioen gainetik. Bateriak behar bezala botatzen ez badira, substantzia horiek osasuna edo ingurumena kaltetu dezakete. Baliabide naturalak babesteko eta materialak berrerabiltzea sustatzeko, bereizi bateriak beste hondakin-motetatik, eta birziklatu bateriak itzultzeko doako zerbitzuaren bidez.



SAMSUNG  
ELECTRONICS



## Adostasun-deklarazioa (R&TTE)

Guk, **Samsung Electronics**  
gure erantzukizunpean aitortzen dugu

**GSM: E2510 telefono mugikorrak**

(hain zuzen ere, mugikor horri dagokio deklarazio hau) estandar hauek eta beste arautegi batzuk betetzen dituela.

SEGURTASUNA	EN 60950- 1 : 2001+A11:2004
EMC	EN 301 489- 01 V1.6.1 (09-2005) EN 301 489- 07 V1.3.1 (11-2005) EN 301 489- 17 V1.2.1 (08-2002)
SAR	EN 50360 : 2001 EN 62209- 1 : 2006
RED	EN 301 511 V9.0.2 (03- 2003) EN 300 328 V1.7.1 (10- 2006)

Honen bidez adierazten da [oinarrizko irratirak erabiltzeko erabiltzeko] aurrez aipatutako produktuak betetzen dituela 1999/5/EE Direktibaren oinarriko eskakizunak.

1999/5/EE Direktibaren 10. artikuluan eta [IV.] eranskinean aipatutako adostasun-balorazioaren prozedura jakinarazitako erakunde hauen parte-hartzearekin egin da:

BABT, Balfour House, Churcheld Road,  
Walton-on-Thames, Surrey, KT12 2TD, UK\*  
Identifikazio-marka: 0168

Dokumentazio teknikoaren haren dago:

Samsung Electronics QA Lab.

eta aurrez eskatuta emango da.  
(EBn duen ordezkarria)

Samsung Electronics Euro QA Lab.  
Blackbushe Business Park, Saxony Way,  
Yateley, Hampshire, GU46 6GG, UK\*


2008.10.07  
(igorpen-lekua eta data)

Yong-Sang Park / S. Manager  
(persona baimendunaren izena eta sinadura)

**CE 0168**

\* Hori ez da Samsung-en Zerbitzu Teknikoaren Zentroa. Samsung-en Zerbitzu Teknikoaren helbidea edo telefono-zenbakia jakin nahi baduzu, begiritu berme-txartelean edo galdetu telefonoa erosi zenuen dendan.





1

#### 4 noranzkotarako desplazamendu-tekla

Modu inaktiboan, bolumena (gora/behera) edo erabiltzaileak definitutako menuak (ezkerra/eskuina) doitzeko aukera ematen du. Menuen moduan, menuaren aukera batetik bestera joateko balio du.

2

#### Web sarbide-tekla/berresteko tekla

Modu inaktiboan, web nabigatzailea hasteko balio dute. Menuen moduan, nabarmendutako menu-aukera hautatzeko edo sarrera bat berresteko balio du.

3

#### Bolumen-tekla

Modu inaktiboan, sakatu bolumena doitzeko tekla bolumen-maila doitzeko

4

#### Bluetooth tekla

Modu inaktiboan, sakatu Bluetooth tekla Bluetooth pantaila batean sartzeko.

5

#### Markatzeko tekla

Dei bati erantzuteko edo dei bat egiteko balio du. Modu inaktiboan, markatutako, galdutako edo jasotako azken deien zenbakiak bistarazten ditu. Larrialdi-mezuak bidaltzeko balio du.

► **Larrialdiko modua**



2 GB arteko microSD® memoria-txartelak onartzen ditu telefonoak (fabrikatzailearen eta memoria-txartel motaren arabera).

# Telefonoaren diseinua

6

## Ahots-postontziaren zerbitzuaren tekla

Modu inaktiboan, ahots-mezueta sartzeko aukera ematen du (luze sakatuta)

7

## Tekla alfanumerikoak

8

## Funtzio-teklak

Pantailaren behealdean adierazitako ekintzak egiteko balio dute

9

## Kamera-tekla

Modu inaktiboan, sakatu kameraren tekla, kameraren modura sartzeko

10

## Pizteko eta menuetatik irteteko tekla

Telefonoa pizteko edo itzaltzeko (luze sakatuta) edo dei bat amaitzeko aukera ematen du. Menuen moduan, sarrera bat ezeztatzeko eta modu inaktibora itzultzeko aukera ematen du.

11

## Musika-tekla

Modu inaktiboan, sakatu musika-tekla musika-erreproduzitailearen pantailara itzultzeko.

12


## Modu isilaren tekla

Modu inaktiboan, luze sakatu modu isila aktibatzeko edo desaktibatzeko

Telefonoan, pantailaren goiko eskuineko aldean, adierazle hauek agertzen dira:


Ikonoa	Deskribapena	Ikonoa	Deskribapena
	Seinalearen intentsitatea		Alarma aktibatuta
	GPRS sarea konektatuta		FM irratia aktibatuta
	Deia martxan		Telefonoaren profila
	Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta		Modu isila aktibatuta
	Atzerriko sarea		Bluetootha aktibatuta
	Mezu berria		Bluetooth entzungailuak edo esku libreko kita konektatuta
	Larrialdi-mezuaren funtzioa aktibatuta		Bateriaren karga-maila

## Modo de emergencia

Sakatu bolumen-teklak lau aldiz, tapa itxita dela, aurrez zehaztutako zenbakietara larrialdi-mezu bat bidaltzeko. Larrialdi-mezua bidali ondoren, telefonoa larrialdi-modura aldatuko da, eta erregistratutako hartzaileen deiak soilik jasoko ditu. Larrialdi-mezuaren hartzaileen dei bat jasotzean, telefonoak automatikoki erantzungo du. Sakatu () larrialdi-modutik irteteko.

Bidaltzeko eta jasotzeko aukerak konfiguratu ditzakezu hemen: <Menú> → Mensaje → Mensajes de emergencia. Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## Jarraibideen ikonoak

	<b>Oharra:</b> oharrak, erabilera-gomendioak edo informazio gehigarria.
→	<b>Ondoren:</b> pauso bat egiteko hautatu behar diren aukeren edo menuen ordena; adibidez: sakatu <Menú> → <b>Mensaje</b> (sakatu <b>Menú</b> , eta, ondoren, <b>Mensaje</b> )
[ ]	<b>Kortxeteak:</b> telefonoaren teklak; adibidez, (☎) (pizteko)/menuetatik irteteko tekla)
< >	<b>Parentesi angeluarrak:</b> pantailan hainbat funtzio dituzten funtzio-teklak; adibidez: <OK> (OK funtzio-tekla da)

## Telefonoa piztea eta itzaltzea

1. Telefonoa pizteko, luze sakatu (☎).
2. Telefonoa itzaltzeko, luze sakatu (☎).



Bateria kendu baduzu, baliteke programatutako alarmak ez jotzea.

## Deiak egitea

1. Modu inaktiboan, sartu area-kodea eta telefono-zenbakia.
2. Sakatu (↵) zenbakia markatzeko.
3. Deia amaitzeko, sakatu (☎).

## Deiak erantzutea

1. Deia jasoan, sakatu (↵).
2. Deia amaitzeko, sakatu (☎)

## Bolumena doitzea

### Tekla bolumena doitzeko

Modu inaktiboan, sakatu bolumena doitzeko tekla bolumen-maila doitzeko.

### Hitz egiten ari zarenean ahotsaren bolumena doitzeko

Deia egitean, sakatu bolumena doitzeko tekla, entzungailuaren bolumena doitzeko.



Bozgorailuaren modua inguru zaratsatu batean erabiliz gero, baliteke arazoak izatea zure solaskideari entzuteko.

Inguru zaratsuetan, hobe da modu arrunta erabiltzea; hobeto entzuten da.

## Orain dela gutxi markatutako zenbakietara deitzea

---

1. Modu inaktiboan, sakatu (↵).
2. Joan ezkerrera edo eskuinera dei-mota bat hautatzeko.
3. Joan gora edo behera zenbaki bat edo izen bat hautatzeko.
4. Sakatu (□) dei baten xehetasunak ikusteko edo (↵) zenbaki bat markatzeko.

## Testua idaztea

---

### Testua idazteko modua aldatzeko

- Luze sakatu (✖) testua idazteko modu batera aldatzeko. Testua idazteko aukeran dauden moduak aldatu egin daitezke herrialdearen arabera.
- Sakatu (✖) letra larrietatik letra xeheetara edo zenbakizko modura pasatzeko.
- Luze sakatu (##) tekla, sinbolo modura aldatzeko.

### T9 modua

1. Sakatu hitz oso bat idazteko tekla alfanumerikoak.
2. Nahi duzun hitza pantailan ondo idatzita bistaratzen denean, sakatu (##) tarte sartzeko. Hitz zuzena agertzen ez bada, sakatu [0] beste hitz bat hautatzeko.

### ABC modua

Sakatu dagokion tekla alfanumerikoa nahi duzun karakterea pantailan agertu arte.

### Zenbakizko modua

Sakatu dagokion tekla alfanumerikoa zenbaki berri bat sartzeko. Ikurren modua

### Ikurren modua

Sakatu dagokion tekla alfanumerikoa ikur bat hautatzeko.



- Kurtsorea mugitzeko, sakatu desplazamendu-tekla.
- Karaktereak banan-banan ezabatzeko, sakatu [C]. Karaktere guztiak ezabatzeko, sakatu [C].
- Karaktereen artean tarte bat sartzeko, sakatu (#).
- Puntuazio-zeinuak sartzeko, sakatu [1].

## Kontaktu berri bat sortzea

---

1. Modu inaktiboan, sartu telefono-zenbakia, eta sakatu <Opciones>.
2. Hautatu **Guardar** → memoriako kokaleku bat (telefonoa edo SIM txartela) → **Nuevo**.
3. Hautatu zenbaki-mota bat (beharrezkoa bada).
4. Idatzi kontaktuari dagokion informazioa.
5. Sakatu <Opciones> → **Guardar** memorian kontaktu bat gehitzeko.

## Mezuak jasotzea eta bistaratzea

---

### Testu-mezua bidaltzeko

1. Modu inaktiboan, sakatu <Menú> → **Mensaje** → **Crear mensaje nuevo** → **SMS**.
2. Sartu mezuaren testua.
3. Sakatu <Opciones> → **Sólo enviar** o **Guardar y enviar**.
4. Sartu hartzailearen zenbakia.
5. Sakatu <Opciones> → **Enviar** mezua bidaltzeko.



### Testu-mezuak ikusteko

1. Modu inaktiboan, sakatu <Menú> → **Mensaje** → **Mis mensajes** → **Buzón de entrada**.
2. Hautatu testu-mezu bat.

## Kamera erabiltzea

---







### Argazkiak ateratzea

1. Modu inaktiboan, sakatu **Menú** → **Cámara**.
2. Sakatu (  ) eta [ezkerrera] o [eskuinera] nahi duzun kameraren konfigurazioa hautatzeko.
3. Sakatu (  ), argazki bat ateratzeko. Argazkia automatikoki gordeko da.
4. Sakatu <Atrás> beste argazki bat ateratzeko.

### Argazkiak ikustea

1. Modu inaktiboan, sakatu <Menú> → **Mis archivos** → **Imágenes** → **Mis fotos**.
2. Hautatu ikusi nahi duzun argazkia.

### Bideoak grabatzea

1. Modu inaktiboan, sakatu **Menú** → **Cámara**.
2. Sakatu (  ) → **Videocámara** bideokamera-modura aldatzeko.
3. Sakatu (  ) eta [ezkerra] o [eskuina] nahi duzun bideoaren konfigurazioa hautatzeko.
3. Sakatu (  ) grabazioa hasteko.
4. Sakatu (  ) edo (  ) grabazioa geldiarazteko. Bideoa automatikoki gordetzen da.
5. Sakatu (  ) beste bideo bat grabatzeko.

## Bideoak ikustea

1. Modu inaktiboan, sakatu <Menú> → **Mis archivos Vídeos** → **Videoclips**.
2. Aukeratu ikusi nahi duzun bideoa.



Kamera erabiltzen ari zaren bitartean ere ikus ditzakezu zure argazkiak edo bideoak. Kamera edo bideokamera moduan, sakatu (📷) → **Galería** → **Fotos o Videoclips**.

## FM irratia erabiltzea

### FM irratia erabiltzea

1. Konektatu telefonoarekin batera etortzen diren entzungailuak.
2. Modu inaktiboan, sakatu **Menú** → **Radio FM**.
3. Sakatu [ezkerrera] o [eskuinera] tekla, eskuragarri dauden irradi-kateak aurkitzeko.
4. Sakatu <Opcion.> → **Radio encendida**.
5. Irratia itzaltzeko, sakatu (☐).

### Irrati-kateak gordetzea

Sintonizazio automatiko bidez:

1. Irrati-pantailan, sakatu **Opcion.>** → **Radio encendida**.
2. Sakatu <Opcion.> → **Sintonización automática**.



1. pausoa egin ondoren soilik aktibatze da sintonizazio automatikoa.

3. Sakatu <Si> berresteko. Entzungai dauden irradi-kateak automatikoki gordetzen dira.
4. Luze sakatu [gora] edo [behera], gordetako irradi-kateak bilatzeko.

Eskuzko konfigurazio bidez:

1. Irrati-pantailan, sakatu [ezkerrera] edo [eskuinera] nahi duzun irradi-katea aurkitzeko.
2. Sakatu <Opciones> eta aukeratu **Añadir a favoritos**.



Entzungailu monofonikoen bidez, bolumena oso baxua da, ia ez da entzuten. Erabili entzungailu estereofonikoak soilik.



2008ko Kudeaketaren Kalitatearen  
Urrezko Q saria



Q Oro Premio a la Calidad de  
Gestión 2008